




Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# KREAZIOA

A SAIOA  
HAURREN KATEKESIA PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**"ETA EGIN ZUEN GUZTIA OSO ONA  
ZELA IKUSI ZUEN JAINKOAK"**

**Has 1, 31**

## **1. Helburua**

- Jainkoak maitasunez sortzen gaituela, guztion Aita dela eta zorioneko izateko behar dugun guztiarekin bizitza ematen digula jakin.

## **2. Helburu bereziak**

- Mundua Jainkoaren kreazioa dela antzeman, maite gaituelako sortzen duela mundua eta sortzen gaituela gu geu.
- Kreazioaren opariagatik liluratuta eta esker oneko sentitu.
- Gutariko bakoitza Jainkoaren kreazio garena konturatu eta horren aurrean esker ona adierazi.
- Jainkoak gizon eta emakume guztiok "bere antz eta irudiko", desberdin, baina duintasunean
- berdin, sortzen gaituela antzeman.
- Kreazioaren eta pertsona guztien zainketan Jainkoaren laguntzaile izateko erantzukizuna dugula antzeman.

## **3. Saioak**

- A saioa, haurren katekesia parrobian.

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina/ bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# A SAIOA HAURREN KATEKESIA PARROKIAN



## Motibazioa

- Jainkoari eskerrak eman biziaren opariagatik eta horrela bere maitasunaren partaide izan.



## Azpimarrak

- Jainkoak bizia ematen ditu eta bere seme eta alaba egiten gaitu.
- Kreazioa, gure bizilekua da; Jainkoak leku bat ematen digu gure familiarekin haz gaitezen..., eta leku hori opari eder bezala zain dezagula eskatzen digu.



## Idea nagusiak

- Saioaren ardatz den kontaketa, kreazioarena da (Has 1, 1-31; 2, 1-2): "Tu primera Biblia", Edebe, 1 zenb., 10. or eta hurrengoak.
- Jainkoak bizia ematen digu eta zorioneko izan gaitzela nahi du.
- Denok dugu garrantzia bera Jainkoaren begietara, bere antz eta irudiko sortu gaitu.
- Jainkoak sortu duena geure egiteko eta zaintzeko askatasun eta erantzukizuna.



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

"Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia».  
Eta izan zen argia" (...).  
"Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia; izan bedi gure irudiko, gure antzeko" (...)  
"Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak" (Hasiera, 1, 3. 26. 31)  
"Tu primera Biblia", Edebe, 1 zenb. 10. or eta hur.

### Bideoak

**Abesteko,  
klik egin irudian**



<https://www.youtube.com/watch?v=4Njpb6WK25M> La creación

### Jarduera, "KREAZIOAREN GURPILA"



### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Sinboloak: kandela, gurutzearen seinalea egin. Otoitz laburra, Gure Aita.
- Zer egin dugu?
- Zer ikasi dut gaur?
- Zer sentitu dugu??



## Ezinbesteko lagungarriak

- Erruleta bana taldekideentzat. (I. eranskina)
- Guraizeak
- Margoak
- Tximeleta-paparrekua
- Jainkoaren Hitza,
- "Tu primera Biblia", Edebe. (II. eranskina)
- Abestia
- Otoitza

Garrantzitsua da denbora hartzea saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldeztatik, gauza guztiak prestatzeko.



## Saiorako gida

### Katekistarentzat...

Katekesirako gela girotu eta saioari hasiera emateko, katekistak prest izango du kreatzioaren gupila jasotzen duen kartulina (I. eranskina).

Saioa, lau unetan banatuko dugu:

- o 1. unea: agurra eta aurkezpena (10 minutu). 1-2 urratsak.
- o 2. unea: gaiaren azalpena (10 minutu). 3-4 urratsak.
- o 3. unea: jarduera. Bideo-abestia (25 minutu). 5. urratsa.
- o 4. unea: adierazpena eta laburpena (otoitza eta ikasi dut) (15 minutu). 6. urratsa.





### Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekistak agurtu egingo ditu hasieran, honako gai hau aurrekoarekin lotuz. Jainkoa maite gaituen eta Berarekin hartu-eman izateko bidea irakasten digun Aita da. Maite gaituen Aita izanik, nola eta zertarako sortu gaituek ikusiko dugu gaur.



1. urratsa. Gaurko saioan, Jainkoaren kreatzioa ezagutuko dugula esango die katekistak haurrei. **Zein ederra den bizia, zein ederra den izadia!** Ondorengo galderoi erantzungo diegu Jainkoaren Hitza entzun aurretik prestatzeko:

- Mendira, hondartzara,... pasean edo txangoan goazenean, zer ikusten dugu? Haurrek gauzak esango dituzte eta guzti hori Jainkoak sortu duela azpimarratuko du katekistak.
- Zuk zeuk, sortu duzu zerbait? Plastilinarekin, imajinazioarekin, lego batekin, buztinarekin... Nola sentitu zara? Esaten dutena jasoko dugu eta ideia nagusiarekin lotu: Jainkoak kreatioari dion miresmena.



2. urratsa. Bibliara joko dugu, kreatioan zer gertatu zen jakiteko. II. eranskinean jasotzen den idazkia irakurriko dugu edo Edebe Biblian jasotzen den txatla.

## Bigarren unea. Gaiaren azalpena

3. urratsa. Irakurri ondoren, entzundakoan sakondu egingo dugu ondorengo galderen laguntzarekin:

- Zer diosku Jainkoaren Hitzak?
- Zer esan nahi digu?

Idea nagusia azpimarratuko dugu: **Jainkoak bizia ematen digu eta seme-alaba egiten gaitu. Kreatzioa gure bizilekua da; Jainkoak lekua ematen digu gure familiarekin haz gaitzen... eta leku hori opari eder bezala zain dezagula eskatzen digu.**

4. urratsa. Gaiaren sakontzeko, entzun kreatzioa eta Jainkoa sortu duen guztian dagoela gogorarazten digun abesti hau

**Abesteko,  
klik egin irudian**



## Hirugarren unea. "KREAZIOAREN GURPILA" JARDUERA

5. urratsa. Katekistak kreatzioaren gurpil bana emango die haurrei eta horman jarri duen gurpilean arreta jartzeko esango die. Katekistaren laguntzarekin, egun bakoitzaz jabetuko dira eta margotu egingo dute. Irudi bakoitza margotzen dugun bakoitzean, Jainkoaren argia ipintzen dugu beraietan, azken batean, Berak gurekin egiten duena egingo dugu: gure bizitza argiz eta kolorez bete. Hona hemen azpimarra: Jainkoak kreatzioa eman digu zain dezagun eta esker ona adierazi behar diogu horregatik.

(Haurrek margotzen erabil dezaten erritmoaren arabera, baliteke etxean amaitzeko eskatu behar izatea).

## Laugarren unea. Bilketa eta laburpena

6. urratsa. Saioari amaiera emateko, Jesus gure artean dela irudikatzen duen kandela piztuko dugu. Jesusekiko konexioa irekiko dugu, "gure routterra piztuz" eta geure gurpila ipiniko dugu aurrean.

- Amaitzeko, eta saioan landutakoa biltzeko, galdera hauei erantzungo diegu:
  - Zer egin dugu?
  - Zer sentitu dugu?
  - Zer ikasi dugu gaur?
- Isilunea egingo dugu..., eta jarraian gurutzearen seinalea (ikasi dute aurretik baina, badaezpada, nola egiten den gogoratu)

Katekistak Luis Guitarraren "El mundo es de todos" abestia ipiniko du.



**Abesteko,  
klik egin irudian**

Eskerrik asko, AitaJainkoa, asko maite g aituzulako!  
Eskerrik asko, Aita  
Jainkoa, oparitu diguzun biziagatik!  
Eskerrik asko, Aita  
Jainkoa, zorientasunerako bidea erakusteagatik!  
Eskerrik asko, Aita Jainkoa,  
Kreatzioa zaintzeko ardura emateagatik.

- Muralaz lagunduta, Gure Aita errezatuko dugu elkarrekin, saioari amaiera emanez.



## I. Eranskina



© Crafting The Word Of God



## I. Eranskina



© Crafting The Word Of God

# ERANSKINAK HAURREN KATEKESIRAKO PARROKIAN

## II. Eranskina

INGURURA BEGIRATZEN DUGUNEAN, GAUZA ASKO IKUSTEN DUTU.  
DENAK SORTU ZITUENJAINKOAK.

HASIERAN, DENA NAHASITA ZEGOEN,  
NAHASTE-BORRASTE HANDIA ZEGOEN. BAINA ESAN ZUEN JAINKOAK:  
«ILUNTASUNEAN EZIN DA EZER IKUSI, IZAN BEDI ARGIA».  
ETA, BAT-BATEAN, DENA ARGITU ZEN.  
ETA HORRELA AGERTU ZIREN EGUNA ETA GAUA.

BIHARAMUNEAN, JAINKOAK ZERUA SORTU ZUEN,  
DENA ESTALTZEN ZUEN SABAI ERARA.  
ONDOREN, EGUN OSOA EMAN ZUEN URA ETA LURRA BANANTZEN,  
ETA HORRELA KONTINENTEAK SORTU ZITUEN.  
BAINA LURRA ITSUSI SAMARRA ZEN ORAINDIK.  
DENA MARROIA ETA HARRI ANTZEKOA.  
HORREGATIK LANDAREEN ETA FRUITUZ BETERIKO ZUHAITZEN  
KAPA BERDEAZ ESTALI ZUEN.

BIHARAMUNEAN, JAINKOAK EGUZKI ERRALDOIA SORTU ZUEN ZERUAN.  
EGUZKIAK EGUNA MARKATUKO ZUEN ETA ILARGIAK GAUA.  
BESTE EGUN BAT IGARO ZEN,  
ETA JAINKOAK ARRAINEZ ETA ASKOTARIKO ANIMALIA  
ETA BIZIDUNEZ BETE ZUEN ITSASOA  
ETA ZERUA HEGAZTIZ BETE ZUEN.

HURRENGO EGUNEAN, JAINKOAK ERA GUZTIETAKO ANIMALIEZ  
BETE ZUEN LURRA: LEHOIAK, ELFANTEAK OTSOAK...  
ETA BAITA INSEKTU ETA NARRASTIAK ERE...  
BAINA KREAZIOA OSATU GABE ZEGOEN ORAINDIK.  
AZKEN EGUNERAKO UTZI ZUEN GARRANTZITSUENA.

ESAN ZUEN: «NIRE ANTZ HANDIA DUEN NORBAIT SORTUKO DUT,  
NEURE IRUDIKO». ETA HORRELA SORTU ZITUEN GIZAKIAK,  
GIZON ETA EMAKUME.

ETA KREAZIO HANDI HORI ZAINTEZKO AGINDU ZIEN,  
ESANEZ: «HAZI ETA UGARITU ETA LURRA BETE ETA ZAINDU.  
ANIMALIEZ BETETAKO MUNDOA  
EMAN DIZUET, ETA LURRAK GUZTIONTZAKO.